

JAGONET EGITASMOAREN AURKEZPENA EUSKALGINTZAKO PROFESIONALEI

Aramaio, 1999-IX-25

Jose Ramon Zubimendi

1999ko otsailaren 26an, Baionan, Euskaltzaindiaren Barne Jardunaldietan aurkeztutako txostenean esaten zen bezala, *Jagon* sailaren helburuetako bat, euskalgintzan dihardutenentzat Kontsulta Zerbitzua eskaintzea da. Izan ere, jendeak, urtean behingo harremanaz gain, unean uneko zalantzak argitzeko bideren bat galdegiten dio Euskaltzaindiari. Horixe da, bestalde, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian, arlo bakoitzerako helburuak zehaztean, euskararen corpusari eta kalitateari dagokion VI.3.3.a. puntuan jasotzen den kontuetako bat:

“Kezka eta zalantzak argitzeko bitartekoak jarri: telefono linguistikoa, aholku-taldeak, galdekizunak, berripaperak eta abar.”

Orain arte ere kontsulta ugari egin zaizkio Euskaltzaindiari (edo batzorde desberdinei). Horiei guztiei emandako erantzunak ordenagailuan jasota daude, baina datu-base egoki batean egituratu beharko lirатеke.

Horretaz gain, hemendik aurrerako zalantzei ahalik bizkorren erantzuteko zerbitzua antolatu, eta erantzun horiek datu-basean sartu beharko lirатеke. Hau da, etengabeko harremana bideratu behar da euskalgintzako jendearen eta Euskaltzaindiaren artean. Eta horretarako ezinbestekotzat jotzen dugu *Jagonet* azpisare informatikoa sortzea, Euskaltzaindiaren sare informatiko orokorrean txertatua egongo dena.

Jagoneten bidez, oraingoz, kontsulta- eta aholku-zerbitzu bateratua eta eguneratua eskainiko litzateke. Ondoren, beste informazio modu bat ere eman daiteke, hala nola:

- Trebakuntza-ikastaroetako partaidetza koordinatua
- Euskaltzaindiari buruzko albisteak (komunikabideetarako)

JAGONET

Azpisare informatikoa dugu, Euskaltzaindiaren sare orokorrean txertatua, kontsulta- eta aholku-zerbitzu bateratua eta eguneratua eskaintzeko.

GIZA BALIABIDEAK

Jagonetera heltzen diren galderei erantzun egokiak eman ahal izateko, nahitaezkoa izango da *Iker* saileko batzordekideen partaidetza, batzordeetako kide bana sartuaz *Jagonet* sarean. Hala, *Jagonera* iristen den kontsulta berezi bakoitza zuzenean bideratuko genuke dagokion *Iker* batzordera. Antolaketa horrek guztiz bermatuko luke erantzun bakoitzaren egokitasuna, eta bermatu ez ezik, asko arinduko luke aholku-zerbitzua bera (arina izan behar baitu, seguruaz gainera). *Jagon* sailak, bestalde, arduradun bat izendatu beharko du kontsulta-zerbitzua koordinatzeko.

INFORMATIKA BALIABIDEAK

Jagonet antolatzeko hiru gauza behar ditugu, informatikari dagokionez:

1. Zabalkunde orokorrerako datu-basea: edukiz, askotarikoa (Arauek, lexikoa, kontsultei emandako erantzunak...); mamiz, laburra (funtsezkoena bakarrik emanez, argi eta garbi); normahiren eskurakoa (Euskaltzaindiaren gainerako datu-base osoak espezialistentzat-eta utziz); etengabe eguneratua (batez ere kontsulten erantzutegia); eta diseinuz, erabilterraza eta erakargarria.

Horrez gainera, kanpotiko galderak eta kontsultak samurki bideratzeko moduko estekaz edo "hiperbinkuloz" hornitua beharko du izan.

2. Erantzun beharraren ardura hartuko duten *Jagoneko* eta *Ikerreko* euskaltzainen arteko eguneroko harremanetarako bide bat: *Intranet*, *chat*, *IRC*, *ICQ* edo dena delakoa.
3. *Jagoneten* arduradun horiek, eta bereziki kudeatzailea, tresneriaz eta programaz hornitzea lan hori egin ahal izateko. Besteak beste, kudeatzailearen bulego "birtuala" sortu eta hornitu egin beharko da.